3. ZIURTAGIRI MAILA	- Eraikinetan helburu berezietarako instalazio elektrikoak jartzeko proiektuak garatzea (520 ordu) - Behe- eta goi-tentsioko elektrizitate-sareak jartzeko proiektuak garatzea (690 ordu) - Eraikinetan instalazio elektrikoak muntatzeko eta mantentzeko lanak kudeatzea eta ikuskatzea (700 ordu) - Bigarren eta hirugarren kategoriako goi-tentsioko lurpeko elektrizitate-sareak eta aterpeko transformazio-zentroak muntatzeko eta mantentzeko lanak kudeatzea eta ikuskatzea (640 ordu) - Bigarren eta hirugarren kategoriako goi-tentsioko elektrizitate-sareak eta transformazio-zentroak muntatzea eta mantentzea (640 ordu) - Behe-tentsioko elektrizitate-sareak eta kanpoko argiak muntatzeko eta mantentzeko lanak kudeatzea eta ikuskatzea (620 ordu)

	ARLO PROFESIONALA: MAKINA ELEKTROMEKANIKOAK
1. ZIURTAGIRI MAILA	Ez dago ziurtagiririk
2. ZIURTAGIRI MAILA	- Sistema domotiko eta immotikoak muntatzea eta mantentzea (480 ordu) - Automatizazio-sistema industrialen muntaketa eta zainketa (510 ordu) - Etxetresna elektrikoen zainketa (500 ordu)
3. ZIURTAGIRI MAILA	- Industria-automatizazioko sistemen proiektuak garatzea (630 ordu) - Industria-automatizazioko sistemak muntatzea eta mantentzea (650 ordu) - Sistema domotiko eta inmotikoen proiektuak garatzea (550 ordu) - Sistema domotiko eta inmotikoen muntaketa eta zainketa kudeatzea eta gainbegiratzea (550 ordu)

Arlo Profesionala: Energia eta Ura

	ARLO PROFESIONALA: URA
1. ZIURTAGIRI MAILA	Ez dago ziurtagiririk
2. ZIURTAGIRI MAILA	Ur-sareak muntatzea eta mantentzea (450 ordu)
3. ZIURTAGIRI MAILA	Ur- eta saneamendu-sare eta instalazioen muntaketa eta mantentze-lanak antolatzea eta kontrolatzea (510 ordu)

	ARLO PROFESIONALA: ENERGIA-ERAGINKORTASUNA
1. ZIURTAGIRI MAILA	Ez dago ziurtagiririk
2. ZIURTAGIRI MAILA	Ez dago ziurtagiririk
3. ZIURTAGIRI MAILA	Eraikinen energia-eraginkortasuna (920 ordu)

	ARLO PROFESIONALA: ENERGIA ELEKTRIKOA
1. ZIURTAGIRI MAILA	Ez dago ziurtagiririk
2. ZIURTAGIRI MAILA	Ez dago ziurtagiririk
3. ZIURTAGIRI MAILA	- Zentral termoelektrikoetako jarduna kudeatzea (750 ordu) - Eragiketa-kudeaketa zentral hidroelektrikoetan (730 ordu) - Azpiestazio elektrikoak muntatzeko eta mantentzeko lanak kudeatzea (620 ordu)

	ARLO PROFESIONALA: GASA
1. ZIURTAGIRI MAILA	Ez dago ziurtagiririk
2. ZIURTAGIRI MAILA	- Gas-sareak muntatzea eta mantentzea (450 ordu) - Instalazio hartzaileak eta gas-aparatuak muntatzea, zerbitzuan jartzea, mantentzea, ikuskatzea eta berrikustea (540 ordu)
3. ZIURTAGIRI MAILA	Gas-sareak muntatzeko eta mantentzeko lanak kudeatzea (520 ordu)

ARLO PROFESIONALA: ENERGIA BERRIZTAGARRIAK	
1. ZIURTAGIRI MAILA	Oinarrizko lanak energia berriztagarrien instalazioen muntaketan eta zainketan (540 ordu)
2. ZIURTAGIRI MAILA	- Eguzki-instalazio fotovoltaiakoak muntatzea eta mantentzea (540 ordu) - Eguzki-instalazio termikoak muntatzea eta mantentzea (580 ordu)
3. ZIURTAGIRI MAILA	- Eguzki-instalazio fotovoltaiakoen antolamendua eta proiektuak (630 ordu) - Eguzki-instalazio termikoen antolamendua eta proiektuak (630 ordu) - Parke eolikoak muntatzeko eta mantentzeko lanak kudeatzea (620 ordu)

Arlo Profesionala: Instalatzea eta Mantentzea

ARLO PROFESIONALA: INSTALAZIOAK MUNTATZEA ETA MANTENTZEA	
1. ZIURTAGIRI MAILA	Etxeko iturgintzako eta berotzeko eta girotzeko eragiketak (480 ordu)
2. ZIURTAGIRI MAILA	Isolamendu termiko eta akustikorako eta suaren aurka babes pasiboa emateko sistemak instalatzea eta mantentzea (620 ordu)
3. ZIURTAGIRI MAILA	- Fluidoak banatzeko sareak eta sistemak mantentzeko eta muntaia ikuskatzeko lanak planifikatzea, kudeatzea eta egitea (580 ordu) - Isolamendu termiko eta akustikorako eta suaren aurkako sistemak muntatzeko eta mantentzeko lanak kudeatzea eta ikuskatzea (620 ordu)

ARLO PROFESIONALA: HOTZA ETA GIROTZEA	
1. ZIURTAGIRI MAILA	Ez dago ziurtagiririk
2. ZIURTAGIRI MAILA	- Hozteko instalazioak muntatzea eta mantentzea (500 ordu) - Girotzeko eta aireztatzeko/erauzteko instalazioak muntatzea eta mantentzea (500 ordu) - Bero-instalazioak muntatzea eta mantentzea (540 ordu)
3. ZIURTAGIRI MAILA	- Girotzeko eta aireztatzeko/erauzteko instalazioak mantentzeko eta muntaia ikuskatzeko lanak planifikatzea, kudeatzea eta egitea (570 ordu) - Hozteko instalazioen muntaketa mantentzeko eta ikuskatzeko lanak egitea, planifikatzea eta kudeatzea (570 ordu) - Hotz-instalazioen proiektuak garatzea (630 ordu) - Fluidoak banatzeko sareen eta sistemen proiektuak garatzea (540 ordu) - Girotzeko eta aireztatzeko/erauzteko instalazioen proiektuak garatzea (540 ordu) - Bero-instalazioak jartzeko proiektuak garatzea (570 ordu) - Bero-instalazioak mantentzeko eta muntaia ikuskatzeko lanak planifikatzea, kudeatzea eta egitea (540 ordu)

ARLO PROFESIONALA: INDUSTRIAKO MAKINAK ETA EKIPAMENDUAK	
1. ZIURTAGIRI MAILA	Ez dago ziurtagiririk
2. ZIURTAGIRI MAILA	- Tresneria industrialaren mantentze eta muntatze mekanikoa (590 ordu) - Igogailuak eta igotzeko eta garraiatzeko beste ekipo finko batzuk instalatzea eta mantentzea (560 ordu)
3. ZIURTAGIRI MAILA	- Makineria, tresneria industrial eta produkzio-lerro automatizatuak mantentzeko eta muntaketa ikuskatzeko lanak planifikatzea, kudeatzea eta egitea (570 ordu) - Biltegiatzeko, mantentze-lanetarako, igotzeko eta garraiatzeko instalazioen proiektuak garatzea (620 ordu)

Arlo Profesionala: Garraioa eta Ibilgailuen Mantentze Lanak

	ARLO PROFESIONALA: IBILGAILUEN ERREPIDE BIDEZKO GIDATZEA
1. ZIURTAGIRI MAILA	Ez dago ziurtagiririk
2. ZIURTAGIRI MAILA	- Autobusak gidatzea (650 ordu) - Salgaiak errepidez garraiatzeko ibilgailu astunak gidatzea (670 ordu) - Turismo eta furgonetak modu profesionalean gidatzea (420 ordu)
3. ZIURTAGIRI MAILA	Ez dago ziurtagiririk

	ARLO PROFESIONALA: IBILGAILUEN ELEKTROMEKANIKA
1. ZIURTAGIRI MAILA	Ibilgailuen elektromekanikako mantentze-eragiketa osagarriak (310 ordu)
2. ZIURTAGIRI MAILA	- Ibilgailuen sistema elektrikoen eta elektronikoen mantentze-lanak (520 ordu) - Nekazaritzarako, erauzketa-industriarako eta eraikuntzarako eta obra zibiletarako makineriaren errodamaje- eta transmisio-sistemak, ekipoak eta lanabesak (680 ordu) - Nekazaritzarako, erauzketa-industriarako eta eraikuntzarako eta obra zibiletarako makineriaren motorrak eta segurtasun- eta erosotasun-sistema elektrikoak mantentzea (510 ordu) - Motorraren eta horren sistema osagarrien mantentze-lanak (520 ordu) - Ibilgailu automobilen indarra transmititzeko sistemen eta errodamaje-trenen mantentze-lanak (480 ordu)
3. ZIURTAGIRI MAILA	Elektromekanika-arloaren planifikazioa eta kontrola (660 ordu)

	ARLO PROFESIONALA: IBILGAILUEN KARROZERIA
1. ZIURTAGIRI MAILA	Ibilgailuen karrozeria mantentzeko eragiketa osagarriak (310 ordu)
2. ZIURTAGIRI MAILA	- Ibilgailuen karrozeriaren egiturazkoak ez diren elementuak mantentzea (630 ordu) - Ibilgailuen karrozeriaren egiturak mantentzea (560 ordu) - Ibilgailuaren gainazalak txukuntzea eta dekoratzea (540 ordu) - Ibilgailuen pintura (500 ordu)
3. ZIURTAGIRI MAILA	Karrozeria-arloa planifikatzea eta kontrolatzea (660 ordu)



	ARLO PROFESIONALA: AERONAUTIKA
1. ZIURTAGIRI MAILA	Mantentze aeronautikoko eragiketa osagarriak (410 ordu)
2. ZIURTAGIRI MAILA	Ez dago ziurtagiririk
3. ZIURTAGIRI MAILA	Ez dago ziurtagiririk

	ARLO PROFESIONALA: TRENBIDEAK ETA KABLEA
1. ZIURTAGIRI MAILA	Ez dago ziurtagiririk
2. ZIURTAGIRI MAILA	- Tren-material errodatzaileetako sistema elektriko eta elektronikoen zainketa (510 ordu) - Tren-material errodatzaileetako sistema mekanikoen zainketa (710 ordu)
3. ZIURTAGIRI MAILA	Ez dago ziurtagiririk

	ARLO PROFESIONALA: NÁUTIKA
1. ZIURTAGIRI MAILA	- Kirol-ontzien eta laketontzien sistemak eta ekipoak mantentzeko eragiketa lagungarriak (390 ordu) - Kirol-ontzien eta laketontzien egiturazko osagaiak mantentzeko eta gainazalak estaltzeko eragiketa lagungarriak (280 ordu)
2. ZIURTAGIRI MAILA	- Kirol eta aisialdiko itsasontzietako zurezko elementuen zainketa-lana (450 ordu) - Kirol eta aisialdiko itsasontzietako arrantza-tresnen zainketa (570 ordu) - Pintura, konponketak, eta zuntzez indartutako plastikozko elementuak eraikitzea kirol eta aisialdiko itsasontzietan (480 ordu)
3. ZIURTAGIRI MAILA	Ez dago ziurtagiririk

Arlo profesionala: Fabrikazio Mekanikoa

	ARLO PROFESIONALA: ERAGIKETA MEKANIKOAK
1. ZIURTAGIRI MAILA	Ez dago ziurtagiririk
2. ZIURTAGIRI MAILA	- Urraduraren, elektrohigaduraren eta prozedura berezien bidezko mekanizazioa (620 ordu) - Ebaketa eta konformazio bidezko mekanizazioa (620 ordu) - Fabrikazio mekanikoko tratamendu termikoak (370 ordu) - Txirbil-harroketak bidezko mekanizazioa (620 ordu) - Azaleko tratamenduak (530 ordu)
3. ZIURTAGIRI MAILA	Ez dago ziurtagiririk

	ARLO PROFESIONALA: FABRIKAZIO ELEKTROMEKANIKOA
1. ZIURTAGIRI MAILA	Fabrikazio mekanikoko eragiketa osagarriak (440 ordu)
2. ZIURTAGIRI MAILA	Ekipo-ondasunen eta industria-makineriaren muntaketa eta abiaraztea (690 ordu)
3. ZIURTAGIRI MAILA	Fabrikazio mekanikoko produktuen diseinua (680 ordu)



	ARLO PROFESIONALA: ERAIKUNTZA AERONAUTIKOAK
1. ZIURTAGIRI MAILA	Ez dago ziurtagiririk
2. ZIURTAGIRI MAILA	• Aireontzien egitura, instalazio, sistema eta ekipoak muntatzea eta mantentzea (580 ordu) • Osagai aeroespazialen fabrikazioa material konposatuen bidez (660 ordu)
3. ZIURTAGIRI MAILA	Ez dago ziurtagiririk

	ARLO PROFESIONALA: EKOIZPEN MEKANIKOA
1. ZIURTAGIRI MAILA	Ez dago ziurtagiririk
2. ZIURTAGIRI MAILA	Ez dago ziurtagiririk
3. ZIURTAGIRI MAILA	• Produksioaren kudeaketa fabrikazio mekanikoan (350 ordu) • Mekanizazio, konformazio eta muntaketa mekanikoko produkzioa (600 ordu) • Pieza polimerikoak eta aleazio arinak ekoizteko moldeak fabrikatzea (630 ordu) • Txapa metalikoko piezak ekoizteko trokelak fabrikatzea (630 ordu) • Dekoletaje bidezko fabrikazioa (630 ordu) • Abiadura handiko eta errendimendu altuko mekanizatu bidezko fabrikazioa (630 ordu) • Galdaketarako edo forja-lanetarako molde eta modeloen diseinua (690 ordu) • Txapa prozesatzeko tresnak diseinatzea (680 ordu)

	ARLO PROFESIONALA: METALEZKO ERAIKUNTZAK
1. ZIURTAGIRI MAILA	Ez dago ziurtagiririk
2. ZIURTAGIRI MAILA	• Elektrodo estalizko eta tig bidezko soldadura (680 ordu) • Industria-hoditeriako instalazioen fabrikazioa eta muntaketa (530 ordu) • Oxigas bidezko soldadura eta mig/mag bidezko soldadura (600 ordu)
3. ZIURTAGIRI MAILA	• Produkzioa metal-eraikuntzetan (490 ordu) • Galdaragintza eta metal-egituren diseinua (660 ordu) • Diseinua ontzīgintza-industrian (640 ordu) • Industria-hodīgintzako diseinua (480 ordu)

	ARLO PROFESIONALA: GALDAKETA
1. ZIURTAGIRI MAILA	Ez dago ziurtagiririk
2. ZIURTAGIRI MAILA	• Fusioa eta isurketa (400 ordu) • Moldeaketa eta argintza (400 ordu)
3. ZIURTAGIRI MAILA	• Galdaketa eta pulbimetalurgia bidezko produkzioa (560 ordu)



4. LH DUALA IKAS-EKINEZKO ERREGIMENEAN

Lanbide Heziketa dualaren bidez gradu ertaineko edo goi mailako titulazioa eskura dezakezu ikastetxe batean jasotako prestakuntza enpresa batean, lan-kontratu batekin, lan egiten duzun bitartean, modu horretan, ikasten ari zaren horretan ariko zara.

Lanbide Heziketa ikasteko modu horrek hainbat abantaila ditu ikaslearentzat:

- ✓ Enpresaren eguneroko funtzionamendua ikus dezake, lanbide batean aritzeko beharrezkoak diren ezagutzak, trebetasunak eta gaitasunak jasoz.
- ✓ Lagungarri da enpresaren beharrian espezifikoak ezagutu eta zure etorkizuneko prestakuntza beharrian horietara egokitze.
- ✓ Lanbide Heziketako ikastetxe batean ematen diren ikasketen eta enpresek eskatzen duten prestakuntzaren arteko desoreka minimizatu egiten da.
- ✓ Gazteak lehenago sartzen dira lan-merkatuan.
- ✓ Gazteek prestakuntza eta ikaskuntzarako **lan-kontratu** bat izateko aukera dute, kualifikazio profesional bat eskuratzen duten bitartean.
- ✓ Ikastetxearen eta enpresen arteko gertutasuna ahalbidetzen du, eduki eta metodo pedagogikoak berritzea sustatuz.

■ PRESTAKUNTZA IKASTETXEAN ETA ENPRESAN

Lanbide heziketako ikastetxeen eta enpresen arteko **lankidetzari esker garatzen da Lanbide Heziketa ikas-ekimenezko erregimenean.**

Ikasleak enpresan betetzen duen lanak lotura estua izan behar du prestakuntza-zikloko eduki eta konpetentziekin. Enpresan edozein lan betetzea ez da baliozkoa.

Prestakuntza eta ikaskuntzarako kontratuan oinarritutako programa batean parte hartzen duen ikaslea Lantokiko Prestakuntza (LP) modulua egitetik, hau da, enpresan praktiketako modulua egitetik salbuetsita egongo da, osorik edo partzialki. Salbuespen osoa lortzeko, kontratuaren iraupena urtebetekoa izan beharko da gutxienez.

■ PROGRAMAREN MODALITATEAK

Lanbide Heziketa duala, oro har, horrela egituratzen da: prestakuntza-zikloko lehen ikasturtea prestakuntza ematen duen ikastetxean egiten da eta bigarren ikasturtean ikastetxea eta enpresa txandakatzen dira.

Halaber, aukera dago ikasleak enpresan emango duen denbora luzatzeko, modu horretan, espezializazioa gehiago landu dezake.

PRESTAKUNTZA IKAS-EKINEZKO L.H. DUALEAN 14-15:

	IKASTETXE PUBLIKOAK			IKASTETXE PRIBATUAK			GUZTIRA		
	IKASTETXE KOPURUA	IKASLE KOPURUA	ENPRESA KOPURUA	IKASTETXE KOPURUA	IKASLE KOPURUA	ENPRESA KOPURUA	IKASTETXE KOPURUA	IKASLE KOPURUA	ENPRESA EZBERDIN KOPURUA
ARABA	3	12	12	2	17	10	5	29	22
BIZKAIA	12	33	31	12	55	42	17	67	48
GIPUZKOA	15	170	124	13	87	68	28	257	192
GUZTIRA	308	215	167	28	187	144	58	402	311

PARTAIDETZA-BILAKAERA PROGRAMAN:

	IKASTETXE PUBLIKOAK			IKASTETXE PRIBATUAK			GUZTIRA		
	IKASTETXE KOPURUA	IKASLE KOPURUA	ENPRESA KOPURUA	IKASTETXE KOPURUA	IKASLE KOPURUA	ENPRESA KOPURUA	IKASTETXE KOPURUA	IKASLE KOPURUA	ENPRESA EZBERDIN KOPURUA
2012-13	11	79	67	16	45	40	28	124	95
2013-14	18	119	91	26	119	42	44	238	176
2014-15	30	219	167	28	183	144	58	402	311



5. LANBIDE HEZIKETA ESKAINTZA PARTZIALEAN

Argazkia: CIFP Tartanga LHII

Eskaintza Partziala Lanbide Heziketa ziklo baten irakasgaiak ikastean datza lanbide heziketa ziklo horretan matrikula osoa egiteko beharrik gabe.

Klaseak arratsalde-gauetan egiten dira lanean dabiltzaten pertsonen bertaratzea ahalbidetzeko.

Matrikula epeak ikasturte akademikoarekin bat etortzen dira gehienetan.

Eskaintza hau 18 urte baino gehiago eta sarrera baldintzak (erdi edo goi mailako lanbide heziketa zikloetarako) betetzen dituzten pertsonen zuzenduta dago. Erdi edo goi mailako heziketa zikloetarako sarrera froga gainditu duten ikasleek ere eskaintza partzialeko eredu honetan ikasi dezakete.

Eskaintza honek lanbide-heziketa ziklo osoa edo ikasgai zehatz batzuk bakarrik osatzeko aukera ematen du. Eskaintza partzialean irakasgai zehatz bat gainditzean, irakasgai horretan lortutako kompetentzia profesionalen froga lez, profesionaltasun ziurtagiri bat lortzen da.

Ikastetxe publikoetan irakasten diren eskaintza partzialean Lanbide Heziketa Industrialeko zikloen irakasgaiak (moduluak) 2015-2016 ikasturtean:

GIPUZKOA

IKASTETXEAK	ARLO PROFESIONALA	ZIKLOAREN IZENA	IRAKASGAIK (MODULUAK)
IEFPS POLITECNICO EASO LHII	Elektrizitatea eta Elektronika	Automatizazioa eta robotika Industrial	- Sistema elektrikoak, pneumatikoak eta hidraulikoak (165 ordu) - Dokumentazio teknikoak (99 ordu) - Industria-informatika (99 ordu) - Enpresa eta ekimen sortzailea (60 ordu)
CIFP DON BOSCO LHII	Instalazioa eta Mantenimendua	Hozteko eta Girotzeko Instalazioak	- Hozteko eta girotzeko instalazioen konfigurazioa (168 ordu) - Girotzeko, aireztatzeko eta erauzteko instalazioak muntatzea eta mantentzea (189 ordu) - Merkataritzako hotz-tresneria muntatzea eta mantentzea (105 ordu) - Instalazioak muntatzeko teknikak (297 ordu)
IES HERNANI BHI	Elektrizitatea eta Elektronika	Instalazio Elektriko eta Automatikoak	Etxebizitzetako eta eraikinetako telekomunikazio-azpiegitura komunak (105 ordu)
CIFP MIGUEL ALTUNA LHII	Fabrikazio Mekanikoa	Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa	- Interpretazio grafikoa (132 ordu) - Mekanizazio-, konformazio- eta muntaia-prozesuen definizioa (231 ordu) - Fabrikazio-prozesuen gauzatzea (198 ordu) - Produktuen egiaztapena (165 ordu) - Kalitatearen kudeaketa, laneko arriskuen prebentzioa eta ingurumen-babesa (165 ordu) - Fabrikazio mekanikoko sistema automatikoen programazioa (100 ordu) - Enpresa eta ekimen sortzailea (60 ordu)
CIFP BIDASOA LHII	Fabrikazio Mekanikoa	Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa	- Fabrikazio-prozesuen gauzatzea (198 ordu) - Kalitatearen kudeaketa, laneko arriskuen prebentzioa eta ingurumen-babesa (165 ordu) - Produktuen egiaztapena (165 ordu)
	Elektrizitatea eta Elektronika	Telekomunikazio eta Informatika Sistemak	- Telekomunikazio-sistemetako azpiegituren konfigurazioa (132 ordu) - Telekomunikazio-sistemetako elementuak (132 ordu) - Informatika-sistemak eta sare lokalak (231 ordu) - Enpresa eta ekimen sortzailea (60 ordu)
	Elektrizitatea eta Elektronika	Instalazio Elektriko eta Automatikoak	- Makina elektrikoak (126 ordu) - Instalazio domotikoak (126 ordu) - Laneko prestakuntza eta orientabidea (105 ordu) - Ingeles teknikoak (33 ordu)
CIFP USURBIL LHII	Fabrikazio Mekanikoa	Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa	- Interpretazio grafikoa (132 ordu) - Mekanizazio-, konformazio- eta muntaia-prozesuen definizioa (231 ordu) - Fabrikazio-prozesuen gauzatzea (198 ordu)
CIFP ARETXABALETA LANBIDE ESKOLA LHII	Fabrikazio Mekanikoa	Metalak eta Polimeroak Moldekatzeko Produkzioa Programatzea	- Interpretazio grafikoa (132 ordu) - Materialak ezaugarritzea (132 ordu) - Kalitatearen kudeaketa, laneko arriskuen prebentzioa eta ingurumen-babesa (165 ordu) - Produktu konformatuak egiaztatzea (165 ordu)
CIFP MEKA LHII	Fabrikazio Mekanikoa	Soldadura eta Galdaragintza	- Interpretazio grafikoa (132 ordu) - Trazadura, ebaketa eta Konformazioa (264 ordu) - Giro naturaleko soldadura (264 ordu)

Modulu guztiak erderaz ematen dira (A eredua)

BIZKAIA

IKASTETXEA	ARLO PROFESIONALA	ZIKLOAREN IZENA	IRAKASGAIAK (MODULUAK)
CIFP NICOLÁS LARBURU LHII	Elektrizitatea eta Elektronika	Instalazio Elektriko eta Automatikoak	• Industria-automatismoak (264 ordu) • Elektronika (132 ordu) • Etxebizitzetako eta eraikinetako telekomunikazio-azpiegitura komunak (105 ordu) • Ingeles teknikoak (33 ordu) • Metal-eraikuntzen diseinua (280 ordu) • Enpresa eta ekimen sortzailea (60 ordu) • Produkzioaren programazioa (120 ordu) • Fabrikazio mekanikoko sistema automatikoen programazioa (100 ordu) • Metal-eraikuntzen proiektua (50 ordu)
	Fabrikazio Mekanikoa	Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa	• Mekanizazio-, konformazio- eta muntaia-prozesuen definizioa (231 ordu) • Fabrikazio-prozesuen gauzatzea (198 ordu) • Laneko prestakuntza eta orientabidea (99 ordu)
IES ANDRA MARI BHI	Instalazioa eta Mantenimendua	Mecatronika Industrial	• Laneko prestakuntza eta Orientabidea (99 ordu) • Fabrikazio-prozesuak (165 ordu) • Sistema mekatronikoen irudikapen grafikoa (132 ordu) • Sistema hidraulikoak eta pneumatikoak (132 ordu)
CIFP ZORNOTZA LHII	Fabrikazio Mekanikoa	Soldadura eta Galdaragintza	• Laneko prestakuntza eta Orientabidea (105 ordu) • Muntaia (231 ordu) • Giro babestuko soldadura (231 ordu)
CIFP REPÉLEGA LHII	Elektrizitatea eta Elektronika	Automatizazioa eta Robotika Industrial	• Enpresa eta ekimen sortzailea (60 ordu) • Laneko prestakuntza eta Orientabidea (99 ordu) • Ingeles teknikoak (40 ordu) • Robotika Industrial (100 ordu) • Sistema programagarri aurreratuak (120 ordu)
CIFP REPÉLEGA LHII	Energia eta Ura	Energi Eraginkortasuna eta Eguzki Energia Termikoa	• Bero-instalazioen konfigurazioa (132 ordu) • Instalazioen energiaeraginkortasuna (165 ordu) • Uraren kudeaketa eraginkorra eraikuntzan (80 ordu) • Instalazioen irudikapen grafikoa (132 ordu)
	Instalazioa eta Mantenimendua	Beroa sortzeko Instalazioa	• Bero-instalazioen konfigurazioa (168 ordu) • Laneko prestakuntza eta orientabidea (99 ordu) • Makina eta tresneria termikoak (264 ordu)

Modulu guztiak erderaz ematen dira (A eredua)



6. URRUNEKO LH

Urruneko Lanbide Heziketari esker, ikasgelara joan ezin daitezkeen pertsonak (lanean ari direlako edo beste ezer ikasten ari direlako) **LH titulua eskura dezakete modu erdipresentzialean.**


Prestakuntza honetan ezinbestekoa da ordenagailu pertsonalaren, ofimatikaren eta Interneten (web-orrialdeetan nabigatzea, posta elektronikoa erabiltzea eta testu-tratamendurako programak erabiltzea, etab.) erabileraren inguruan oinarritzko ezagutza izatea.

Urrutiko Lanbide Heziketa Institutuan, hurrengo Industria arloko erdi eta goi-mailako heziketa zikloak ikas ditzakezu:

- ✓ Gradu ertainak Instalazio elektrikoak eta automatikoak
- ✓ Goi-maila Diseinua fabrikazio mekanikoan
- ✓ Goi-maila Fabrikazio mekanikoaren ekoizpeneko programazioa

Eusko Jaurlaritzako Urruneko Lanbide Heziketaren Institutuaren web-orrialde ofizialean prestakuntza-ziklo horien xehetasunak, horietako moduluak, zikloak zein hizkuntzatan ematen diren eta izen-emateko epeak kontsulta daitezke. **www.ulhi.hezkuntza.net**

Ikasleek saio presentzialetara **joan behar dira ikastegi kolaboratzaileetan** eta derrigorrezkoa da, gutxienez, **% 80ko asistentzia izatea** (orduak zenbatuta).



■ SARBIDEA

Urruneko Lanbide Heziketa egiteko **hurrengo baldintzak bete behar dira:**

- **Adina:** Teknikari Titulazioetan Urruneko Ikaskuntzan sartu ahal izateko ezinbestekoa da 18 urte beteta izatea eta Goi Mailako Teknikari Titulazioetan 20 urte beteta izatea (edo 19 urte, Teknikari Titulua izanez gero).
- **Akademikoak:** Lanbide Heziketako ikaskuntzarako, oro har, ezartzen direnak.

■ MATRIKULA

Matrikula moduluka egiten da eta ez ikasturteka. Modulu bat irakastorduen arabera neurtzen da eta Hezkuntza Sailak ikasturte akademiko batean pertsona batek egin dezakeen gehieneko irakastordu kopurua finka dezake.

Ikasturte akademiko berean ezin da modulu bereko bi modalitate ezberdinetan matrikulatuta egon (modalitatetzat ulertzen dira “presentziala”, “partziala”, “librea” eta “urrunekoa”).

Matrikula norberaren borondatez ezeztatu daiteke moduluaren iraupen osoaren % 80ra heldu aurretik, eta ezeste horrek “baja” eman dela esanahiko du, ondorio guztietarako. Deialdiak ezin dira ukatu.



7. EKINTZAIETZA- ESPERIENTZIAK INDUSTRIA ARLOKO LANBIDE HEZIKETAN

Atal honetan ekintzailertzan murgiltzea erabaki duten industria arloko Lanbide Heziketako ikasle ohien esperientzia deskribatzen da. Ikasketa ezberdinen artean hautatzeko erabakiaren aurrean dauden pertsonentzako erreferentzia izatea da atal honen helburua, ekintzailertzan murgiltzeko asmoa izan zein ez izan.

Barneko ikuspegi hau oso lagungarri izan daiteke, izan ere, indarreko araudiak, aurki daitezkeen arazo ohikoenak eta sektore bakoitzeko estatistikak sakon azaldu arren, beti askoz ere aberasgarriagoa da ekintzailertzaaren ibilbidea lehen pertsonan egin duenaren esperientzia jakitea.

7.1. SEI BulegoTeknikoa

SEI BulegoTeknikoa (www.seiweb.es) duela 8 urtez geroztik Makina-erremintako proiektuak eratzen dituen enpresa bat da. Proiektua 2007. urtearen hasieran abiatu zen, Sebas Etxabek, enpresako kideak, adierazten digun moduan, bere ekintzailetza-esperientzia azalduz.

Sebasek LH2 Titulua eskuratu zuen lehendabizi (gaur egun goi mailako zikloa litzatekeena) delineatzaile modura eta 15 urte eman zituen besteren kontura lanean. Denbora horretan, bitartean, hizkuntzak ikasi zituen eta bere lan-sektoreko funtzionamendua ezagutu zuen. Ekiteko ordua iritsi zela erabaki zuenean, DEBEGESA sozietatearen ikastaroetara jo zuen. Bertan ezagutzen ez zituen enpresaren munduko alderdien inguruko azalpenak eman zizkieten: fiskalitatea, marketina, komunikazioa, etab.



Sebas Etxabe, ekintzailea.

Aitortu digunez, prestakuntza funtsezko elementu bat izan da, enpresa aurrera ateratzeko lagungarri izan dena *“Enpresak aurrera egin eta iraun dezan beharrezkoa den ikuspegi orokor bat izateko”*. Ekintzaile honek izandako esperientziaren barnean, nabarmendu egin du *“Norberarentzat lan egitearen sentsazioa, horrek dituen abantaila guztiekin eta malgutasunarekin”*. Haatik, norberaren negozioa gidatzeak erantzukizun handia eskatzen duela aitortzen du. Hori eta *“arriskuaren aurrean bakarrik egotea”* kudeatzen ikasi beharreko alderdiak dira.

Sebas baikor da. Une honetan duen helburua bere fakturazio-bolumena mantendu eta enpresa aurrera atzeratzen jarraitzea da. Haatik, etorkizunean hazteko asmoa du, izan ere, bere iguripenak onak dira eta ez du uste aldatuko direnik. Bere proiektuarekin oso pozik dagoela aitortzen du, eta beti hobetzeko zerbait dagoela dakienaren sen kritikoa mantendu egiten du. Hala ere, horrek ez dio kentzen enpresa aktibo mantendu izanaren harrotasuna, une gogorrak edo ez horren oparoak gaingiduz.

Ekiteko asmoa duenari edo etorkizunean bere kabuz ibilbide bati ekiteko zein ikasketa hautatu erabaki ezinik dagoenari zer esango liokeen galdetu diogunean zera esan digu, garrantzitsua dela *“Enpresa-proiektua proposamen errealistekin egitea, izan ere, alderdi asko estimazioetan oinarritzen dira, eta horrek norbere burua engainatu eta enpresak porrot egitea eragin dezake”*.

7.2. Estrulaser Tubo S.L.

Estrulaser Tubo S.L. (www.estrulaser.com) hodi eta profil irekien mekanizatuan lan egiten duen enpresa bat da, laser-teknologia erabiliz. Unai Leyaristi enpresako kidea da. Berak kontatu digunez, enpresa 2007an sortu zen Armeria Eskola Lanbide Heziketako ikastegiaren eta Saiolan aholkularitzaren laguntzarekin.

Enpresa adar profesional ezberdinetatik datozen bazkideek osatzen dute: ingeniartza, delineazioa eta automobilgintza. Kide guztiek ezagutzen zuten laser-teknologia aldeaz aurretik, izan ere, bazkideak laser lauarekin lan egiten duen enpresa batetik datoz. Dena den, Unaiak aitortu digunez, hodiaren mekanizatuaren inguruko prestakuntza eta ezagutza *“hegal-di-orduak sartuz”* eskuratu zituen. Haatik, aitortu digunez, Saiolan aholkularitzak enpresa-kudeaketa, administrazio eta merkatu-azterketari buruz, *“adibide argi eta praktikoekin”*, emandako ikastaroak oso baliagarriak izan ziren enpresa aurrera eramateko.

Ekintzailetzari dagokionez, Unaiak adierazi digu bere sektorean berea *“teknologia berria dela, orain ezagutzen hasi dena galdaragintzako bulego teknikoetan, altzari-enpresetan edota automobilgintzan”* eta esparru askotan aplika daitekeen teknika bat dela, eta hori abantaila bat dela. Bere sektorean ekitearen alderdi zailena, adierazi digunez, zera da, *“lehiakortasuna gero eta handiagoa dela eta 2009. urtetik prezioak mantendu egin direla”*.

Enpresa modura duen helburua *“gure bezeroei kalitate-prezio bitasunari dagokionez zerbitzu ona ematea da, malguak izanez eta diseinua eta ezagutzak eskainiz”* baina baita enpleguak sortzea ere. Enpleguak sortzeari dagokionez, Unaiak aipatu digunez, une honetan egoera zaila da, izan ere, gaur egun ekoizten dutenaren kopurua ez da egonkorra, gorabeherak dituzte, eta egonkortasun gehiago behar da langileak kontratatatu ahal izateko.

Zailtasunak zailtasun, bazkide modura, edozein adoretzen du *“probatu eta ausartzera, ikusmira etorkizunean jarritz”*. Ohartarazten du *“hasierak ez direla batere errazak”* eta bere kasuan bereziki zaila izan zela *“izan ere, jendeak ez zuen teknologia ezagutzen eta krisian sartu baino hilabete batzuk lehenago ekin genion bideari, horri guztiorri ez-ordaintzeak eta abar gaineratu behar zaizkio”*. Hala eta guztiz ere, esan digunez, *“atzera begiratzuz, harro edo, bederen, pozik egoteko modukoa da, gure akats eta jardun onarekin, pixkanaka-pixkanaka, hainbat urte igaro ondotik, gure berri dute hainbat sektoretan eta enpresako lantaldea eta beharrianak areagotzen ari dira”*

Amaitzeko, ekintzaile berrien inguruan galdetu diogu, ekiteko asmoa duen jendearen inguruan, eta hau izan da horretan pentsatzen ari den pertsonarentzat eman digun aholkua: *“bere prestakuntza guztia egunerokotasunean isla dezala, hemen egunero ikasten da zerbait eta industriaren munduan ekiteko asmotan badabil, normalean, lehen urtean belaki bat zara, dena xurgatzen duzu. Ez da dena eder eta polita eta estropezu egiten baduzu, altxatu eta jarraitu egin behar duzu, betiere, zenbakiak iraunkorrak badira...”*



7.3. Biselek S. Coop.

Biselek S. Coop. (www.biselek.es) 6 kide dituen enpresa bat da, 2014. urtean sortua, eta material elektrikoa eta automobilgintzakoa banatzen lan egiten du.

Enpresa horretan lehenesten den prestakuntza Erregulazio- eta Kontrol- Sistema Automatikoetako Goi Teknikariarena da. Enpresako kide batek adierazten digunez prestakuntza hori ezinbestekoa izan zaio, izan ere, bere enpresa-jarduna prestakuntza-ziklo horietan jasotako ezagutzetan oinarritzen da. Ekintzailetzari dagokionez, bere sektorean egoera konplexu samarra dela aipatu digu, izan ere, merkatua erabat hartuta dago eta ibilbideari duela urtebete eskas ekin izanaren zailtasuna gaineratzen da beraien kasuan. Haatik, kooperatiba bat eratzearen hautua oso gomendagarria dela aipatzen digute, eta norberaren enpresa gidatzea, 6 bazkidek zuzendu eta mantentzen dutena, pertsonalki oso asebetegarria dela.

Egoera zail samarrean egon arren etorkizun hurbilean hazteko iguripen oso onak dituztela adierazi digute eta proiektuarekin pozik daudela azpimarratu digute: *“aurrera egin daitekeela sentitzen dugu eta ekimena, gogoia eta eginahala laguntzat hartuta enpresak emaitzak emango dituela uste dugu, sentitzen dugu, eta hori oso asebetegarria da”*.

Etorkizuneko ekintzaileen inguruan edo ekiteko aukera aztertzen ari diren pertsonen inguruan galdetu diegunean, esan digutenez, garrantzitsua *“ideiak argi izan eta asko saiatu eta lan egitea da, norberak duen guztia, % 100a ematea, gauzek aurrera egin dezaten”*.





8. KONPETENTZIA PROFESIONALEN AKREDITAZIOA

Esparru profesional jakin batean lan-esperientzia baduzu edo aitortu gabeko prestakuntza baduzu, ziurtagiri ofizial bat eskura dezakezu.

Lanbide Heziketaren **Konpetentzia eta Kalitatea Ebaluatzeko Euskal Agentzia** da prozesu hori kudeatzen duen erakundea. Aipatu erakundea Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Lanbide Heziketako eta Etengabeko Ikaskuntzako Sailburuordetzaren baitakoa da.

Orain arte sei mila pertsona baino gehiagok hautatu dute Aintzatespen Sistema.

Zer da konpetentzia profesionalen akreditazioa?

Eusko Jaurlaritzak konpetentzia profesionalak akreditatzeko prozedurak deitu ohi ditu urtero, lan-merkatuko beharrian kontuan hartuta.

Deialdi bakoitza esparru profesional jakin batzuen ingurukoa izango da eta zure profilarekin bat datorren hartan parte hartzeko aukera izango duzu.

Behin izena emanda, egiten dakizuna erakusteko eskatuko zaizu eta prozedura gainditu ondoren **lurralde nazional osoan baliagarria den akreditazio bat** jasoko duzu, titulazio bat eskuratzeko jarraitzeko urratsen inguruko orientazioekin batera.

Nork izan dezake akreditatzeko interesa?

Ezagutza profesionalak lan-jardunean jaso eta titulaziorik ez duenak.

- ✓ Laneratzeko asmoarekin ikasketak utzi bazenituen eta zure lanpostuan lanbidea ikasi baldin baduzu...
- ✓ Boluntario edo bekadun modura lan eginez konpetentzia profesionalak jaso badituzu...
- ✓ Bizitzan zehar lan-munduko konpetentziak eskuratzeko baliagarriak izan zaizkizun jarduerak egin badituzu ordainsaririk jaso gabe...
- ✓ Orduan, zure jardunarekin lotutako konpetentzia profesionalak akreditatzeko deialdi batera aurkez zaitezke...

Betekizunak

Prozeduran parte hartu nahi duten pertsonen hurrengo betekizunak bete behar dituzte nahitaez:

- a. Espainiako nazionalitatea izatea, Batasuneko herritar erregistroaren ziurtagiria edo Europar Batasuneko herritarren familia txartela eskuratu izana, edo egoitza-baimen baten edo egoitza eta lan baten, indarrekoa, titular izatea.
- b. Izena ematerako unean, gutxienez, 18 urte beteta izatea 1. mailako kualifikazioen kasuan eta 20 urte beteta izatea 2. eta 3. mailako kualifikazioen kasuan.
- c. Akreditatu nahi diren konpetentzia profesionalekin zerikusia duen lan-esperientzia edota prestakuntza izatea, jarraian adierazten denaren arabera:
 - 1. mailako kualifikazioetarako lan-esperientziaren kasuan, gutxienez 2 urte justifikatu behar dira, guztira 1.200 lan-ordurekin, deialdia egin aurreko 10 urteen barnean.
 - 2. eta 3. mailako kualifikazioetarako lan-esperientziaren kasuan, gutxienez 3 urte justifikatu behar dira, guztira 2.000 lan-ordurekin, deialdia egin aurreko 10 urteen barnean.
 - Akreditatu nahi diren konpetentzia profesionalekin zerikusia duen prestakuntza ez formaren jabe izanik prozeduran parte hartu nahi duten pertsonen kasuan, ezinbestekoa izango da gutxienez akreditatu nahi den kualifikazio/titulu bakoitzeko prestakuntza-orduak akreditatzea, deialdia egin aurreko 10 urteen barnean jasotakoak.

Nola garatzen da prozedura?

Hiru fase ditu: Aholkularitza, Ebaluazioa eta Akreditazioa eta Erregistroa.

1. fasea: Aholkularitza

- Zure lan- eta prestakuntza-historiaren inguruan aurkeztutako dokumentazioa aztertzen da eta, beharrezkoa bada, aholkulari batek lagunduko dizu dokumentazio hori osatzen.
- Zure konpetentzia profesionalak aztertzen lagunduko zaituzte.
- Bigarren fasera jotzeko komenigarritasunari buruzko aholkulariaren balioespena jasoko duen txosten orientagarri bat prestatuko da.
- Ebaluazio-fasera jo nahi duzun erabaki ahal izango duzu, aholkulariaren txostena kontuan hartuta.

Zeintzuk dira aholkulariak?

- Deialdian zehaztutako sektore profesionalean aritzen diren adituak dira eta lanketa hau burutzeko prestatu direnak.

2. fasea: Ebaluazioa

- Aurkeztu duzun dokumentazioa aztertzen da zehatz-mehatz.
- Behar bezala justifikatuta ez dauden konpetentzia profesionalak dituzula erakusteko eskatuko zaizu. Esate baterako, zure lanpostuan aurki dezakezun egoera baten inguruan erakustaldi praktikoa bat egiteko eskatu ahal zaizu.

Zeintzuk dira ebaluatzaileak?

- Deialdian zehaztutako sektore profesionalean aritzen diren adituak dira eta lanketa hau burutzeko prestatu direnak.

3. fasea: Akreditazioa eta Erregistroa

- Ebaluazioa ongi gaindituz gero, erakutsi dituzun konpetentzia profesionalekin lotutako akreditazio bat eskuratuko duzu.
- Akreditazioak Lanbideren erregistro batean gordeta geratuko dira.
- Prozedura honen bidez Profesionaltasun-ziurtagiria eskuratzeko betekizunak osatzean, Lanbidek, Euskal Enplegu Zerbitzuak, helarazi egingo dizu. Modu berean, Konpetentzia Unitate guztiak gainditu ez badituzu, Ebaluazio Batzordeak prestakuntza-plan bat helaraziko dizu. Bertan adieraziko zaizu zein prestakuntza jasotzea komeni zaizun. Lanbide Heziketako titulu batean barneratzen diren konpetentzia-unitate guztien akreditazio ofiziala eskuratu eta sarrera-betekizunak betetzen badituzu, titulua eskuratu nahi baduzu, ikastegi batean matrikulatu, dagozkion baliozkotzeak eskatu eta falta zaizkizun zeharkako moduluak egin beharko dituzu. Lanbide Heziketako ikastegiekin eta Lanbidek emango dizute horri buruzko aholkularitza.

2014/2015 ikasturtean akreditatu ahal izan diren konpetentzia profesionalak:

- ✓ Gainazal eta altzarien garbiketa eraikin eta lokaletan.
- ✓ Osasun-garraioa
- ✓ Pertsonen arreta soziosanitarioa etxean
- ✓ Mendeko pertsonen arreta soziosanitarioa gizarte-erakundeetan
- ✓ Izurriteen kontrolerako zerbitzuak
- ✓ Industria-ekipamenduen muntatze eta mantentze mekanikoa
- ✓ Mekanizazioa
- ✓ Administrazioa eta Finantzak
- ✓ Biktima askoko eta hondamendietako egoeretako osasun-laguntza
- ✓ Organismo kaltegarriak kontrolatzeko zerbitzuen kudeaketa
- ✓ Soldadura eta galdaragintza
- ✓ Behe Tentsioko instalazioen muntatze eta mantentzea
- ✓ Elektromedikuntzako sistemen muntatze eta mantentzea
- ✓ Haztegi, lorategi eta lorezaintza zentroetan laguntza-lanak
- ✓ Sukaldaritza

Konpetentziak akreditatzeko prozedurari buruzko informazio guztia auki dezakezu **www.hezkuntza.net**. web-orrialdean Bertan zaudela, sakatu *“Lanbide Heziketa”* botoia eta jo esteka honetara: *“Ikaskuntzen Aitorpena (Gailu zaharra)”*



GEHIAGO JAKITEKO

Beheko web esteketan informazio gehiago aurkituko duzu:

- ✓ www.hezkuntza.net
- ✓ www.lanbide.euskadi.eus
- ✓ www.ikaslan.net
- ✓ www.hetel.org
- ✓ www.todofp.es
- ✓ www.ulhi.hezkuntza.net
- ✓ www.educaweb.com

Ongi etorri Industria arloko Lanbide Heziketari buruzko gure gidara. Bertan datu eta informazio andana aurkituko duzu, lagungarri izango zaizuna zure etorkizuna argitzeko ikasle nahiz profesional modura.

Konturatuko zinen moduan, industriarekin lotutako Lanbide Heziketa zikloen inguruan mintzatuko gara nagusiki. Zergatik Industria arloko Lanbide Heziketa? Bi arrazoi nagusi direla medio: **Ez delako behar beste ezagutzen eta laneratze-maila onak dituelako.**

Gida honetan informazio hau aurkituko duzu: industria arloko prestakuntza-zikloen ezaugarriak, LH ikasteko modalitate ezberdinak (urruneko modalitatea, moduluka, ikasketak eta lana uztartuz, etab.), konpetentzia profesionalen akreditazioa, profesionaltasun-ziurtagiriak, Industria arloko Lanbide Heziketa ikasi duten eta beren enpresa sortu duten pertsonen lekukotzak, etab.